



Irailak 24
Abenduak 18

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA** 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus



**Nafarroa
sortzen
segi
dezagun
euskaratik
eta
euskaraz.**



IRRIKAZ, GOGOZ, ARDURAZ

Bost urte igaro dira aurreko Bertsolari Txapelketa Nagusia egin genuenetik. Urte horiek oso gorabeheratsuak izan dira kulturgintzarako, eta orain artean ezagutu gabeko atakan izan da bertsolaritza: bertso plaza ia erabat geldirik, sortzaileak kinka larrian, gure ekosistema egun batetik bestera hankaz gora, bertso-eskolak halabeharrez mutu, ekimen franko bertan behera...

Hala ere, egoeraren gordinak ifrentzua ere izan du, okerreanean ere izan dugu heldulekurik; elkartasunak, mugimenduaren irudimenak eta autoantolakuntzarako gaitasunak lagundu digute aurrera egiten. Horrez gain, eguneroko erritmoa zertxobait moteldu behar izan dugunean, munta handiko gaiak azalarazteko gai izan gara; besteak beste, kulturaren zereginaz edo sortzaileen lan baldintza duinez mintzatu gara azken hilabeteotan, ozen eta argi. Behartutako geldialdiak zenbait ikasgai eta etxeko lan utzi dizkigu denoi.

Testuinguru horretan ailegatu da Bertsolari Txapelketa Nagusia 2022. Parte-hartzaileak irrikaz daude, plaza bere onera etortzen ari da, eta bertsozaleen partetik gogo berezia sumatzen da. Antolakuntzan, berriz, sortutako espektatibei arduraz eta taxuz erantzuten saiatuko gara.

Pasatutakoak ahaztu gabe, berriro ere bertsogintza izan dadila hizpide.

Bertsozale Elkartea

Arabako Bertsozale Elkartea

Benito Perez Galdos plaza, z/g
01002 Gasteiz (Araba)
(+34) 945 010 505
araba@bertsozale.eus

Bertsularien Lagunak Elkartea

(Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa)
Larraldea etxea. Amotze auzoa
64310 Senpere (Lapurdi)
(+33) (0) 559 541 504
bertsularien-lagunak@bertsozale.eus

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Zabale kalea, 9 (atzea)
48200 Durango (Bizkaia)
(+34) 946 812 711
bizkaia@bertsozale.eus

Gipuzkoako Bertsozale Elkartea

Larramendi kalea, 7
20400 Tolosa (Gipuzkoa)
(+34) 943 670 575
gipuzkoa@bertsozale.eus

Nafarroako Bertsozale Elkartea

Baratzetako zeharkalea, 2 (behea)
31014 Iruñea (Nafarroa)
(+34) 948 143 747
nafarroa@bertsozale.eus

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

Xenpelar Dokumentazio Zentroa
Lanku Kultur Zerbitzuak
Kale Nagusia, 70
20150 Amasa-Villabona (Gipuzkoa)
EHBE: (+34) 943 694 129 bertsozale@bertsozale.eus
Xenpelar: (+34) 943 694 277 xenpelar@bertsozale.eus
Lanku: (+34) 943 260 755 lanku@lanku.eus

BERTSOZALE ELKARTEA

Euskal Herri osoan eragiten ari den
bilgunea da Bertsozalea Elkartea

**IRAILA**

		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

URRIA

					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

AZAROA

					5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

ABENDUA

					3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Lehenengo fasea (17:00)

Irailak 24, Getxo.
Muxikebarri Zentroa

Irailak 25, Arrasate.
Amaia Udal Antzokia

Urriak 1, Gotaine-Irabarne.
Herriko gela

Urriak 2, Gasteiz.
Europa Biltzar Jauregia

Urriak 8, Donostia.
Victoria Eugenia Antzokia

Urriak 9, Lizarra.
Los Llanos Kulturgunea

Finalaurrekoak (17:00)

Urriak 22, Elizondo.
Baztan pilotalekua

Urriak 29, Donibane Garazi.
Jai Alai

Azaroak 5, Irun.
Ficoba

Azaroak 12, Durango.
Landako Gunea

Azaroak 19, Amurrio.
Bañueta Kiroldegia

Azaroak 26, Baiona.
Lauga

Abenduak 3, Bilbo.
Bizkaia Frontoia

Finala (11:00)

Abenduak 18, Iruñea.
Nafarroa Arena

JARRAITU BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA
Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen sare sozialetan



Eta Telegramen ere bai!
#BTN22



Sarrerak:
bertsosarrerak.eus

ARIKETAK



Lehenengo fasea (15 bertso puntuagarri)

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian/lau puntuko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian/bost puntuko txikian
- Ganbarako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Finalurrekoak

Lehen itzulia (16 bertso puntuagarri)

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian/lau puntuko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian/lau puntuko txikian, puntutan, zortzi bertso osatu arte
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean¹
- Ganbarako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Bigarren itzulia (14 bertso puntuagarri)

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian/bost puntuko txikian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian/lau puntuko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian
- Ganbarako lana: banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian eta gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Finala

Goiza (15 bertso puntuagarri)

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian/lau puntuko handian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian
- Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian
- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean¹
- Ganbarako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Arratsaldea (10 bertso puntuagarri)

- Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian/bost puntuko txikian
- Binaka, gaia emanda, zortziko txikian/lau puntuko txikian, puntutan, zortzi bertso osatu arte
- Bakarka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian
- Buruz burukoak: (10 bertso puntuagarri)
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso *Iparragirre abila dela* doinuan
 - Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian/lau puntuko txikian
 - Ganbarako lana: banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian²; eta banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

BIOMASA GALDARAK

IRTENBIDE ERRAZA, EKONOMIKOA ETA %100 BERRIZTAGARRIA

- ⊙ ERREGAI %100 BERRIZTAGARRIA
- ⊙ ENERGIARIK MERKEENA
- ⊙ TOKIKO ENPLEGUA SORTZEN DUEN ERREGAIA
- ⊙ AUTONOMIA ENERGETIKOA
- ⊙ ERREGAIAREN PREZIOA MERKEA ETA DENBORAN EGONKORRA



AEROTERMIA

EROSOTASUNA ETA AURREZPENA, NEURRIZKO INBERTSIOA EGINDA

- ⊙ ENERGIA EZ KUTSAGARRIA
- ⊙ EFIZIENTZIA ENERGETIKO OSO HANDIA
- ⊙ ERABILTZEN ERRAZA
- ⊙ BEROKUNTZA ETA HOZKUNTZA
- ⊙ BESTE ENERGIA BATZUEKIN KONBINATUZ EFIZIENTZIA HANDITZEKO AUKERA

1. Zortzikoa, berdinarean moldekoa, sei puntuz/sei puntukoa, berdinarean moldekoa

2. Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, bederatzi puntuz/bederatzi puntukoa, txikiaren moldekoa



SA RRE RAK

Non?

Sarrera guztiak:

www.bertsosarrerak.eus

	BAZKIDEAK	EZ-BAZKIDEAK	GAZTEAK*
LEHENENGO FASEA	10 €	12 €	6 €
FINALAURREKOAK	14 €	17 €	10 €
FINALA	30 €	42 €	20 €

*2004 urtetik aurrera jaiotakoak (urte hau barne)

Bazkideei finalerako sarrera gorde zaizue astebetez

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean lekua ziurtatuta izan dezazuen, Bertsozale Elkartek sarrera gorde dizue bazkideei ekainaren 23tik 30era bitartean. Hala, salmenta orokorrean sarrerok bukatuz gero ere, bazkideok ziurtatuta izan duzue tokia erosketa astebete horretan eginez gero.

Sarrerak epe horretatik kanpo erosita ere, eta amaitzen ez badira, bazkide prezioan eskuratu ahal izango dituzue sarrerak bazkide zairetenok: txapelketa guztian zehar.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!



Bertso Eguna, Bertso Udalekuak, txapelketak, Bertsozale Elkartearen egitasmoak, bertsozaleen ikastetxean, ikastaroak, bertsozaleen aztertzeko ikerketa deialdiak,...

Bertsozale Elkarteko proiektuarekin bat egin nahi duzu?

Urtean 60 euroren truke* lagundu Bertsozale Elkartearen egitasmoak gauzatzen eta bertsozaleen abantailak izango dituzu. Orain hasi eta txapelketa amaitu bitartean bazkide eginez gero, oparitxo bat ere jasoko duzu.

Gainera, Bertsolari Txapelketa Nagusiko sarrerak prezio hobean eskuratzeko aukera eta bazkideen abantailak izango dituzu. Orain hasi eta txapelketa amaitu bitartean bazkide eginez gero, oparitxo bat ere jasoko duzu.

Nola egin zaitzke bazkide?

- www.bertsozale.eus webgunean bazkideetza orria beteta.
- (+34) 943 694 129 zenbakira deituta.
- bazkideetza@bertsozale.eus helbidera idatzita.

* Elkarrekin 120 euro eta 18 urtetik beherakoek ez dute kuota ordaintzen.



BASERRIKO ESNE ARDURATSUA

Euskal Herriko abeltzain familiek egunero jasoa.



LIZEAGA

SAGARDOTEGIA

SAGARDO NATURALA

www.lizeaga.eus





GAI-JARTZAILE TALDEA

- Ainhoa Larretxea Agirre (Bera, 1996)
- Alaitz Rekondo Ferrero (Lesaka, 1980)
- Amaia Castorene Luro (Baigorri, 1988)
- Amaiur Lujanbio Agirre (Baiona, 1980)
- Ander Aranburu Arriola (Lizarra, 1985)
- Ane Ezenarro Beristain (Eibar, 1991)
- Aritz Bidegain Aire (Baiona, 1982)
- Beñat Vidal Gurrutxaga (Plentzia, 1986)
- Idoia Anzorandia Kareaga (Barakaldo, 1983)
- Imanol Artola Arretxe 'Felix' (Amezketza, 1989)
- Ion Zaldua Brit (Amasa-Villabona, 1978)
- Leire Garatxena Larrabe (Ajangiz, 1991)
- Maialen Belarra Eneterreaga (Doneztebe, 1992)
- Zihara Enbeita Gardoki (Gernika-Lumo, 1976)



EPAILE TALDEA

- Ainhoa Arregi Elosua (Bilbo, 1972)
- Ainhoa Sarasua Lascaray (Itsasu, 1997)
- Aitor Jimenez Tolosana (Bilbo, 1962)
- Amaia Otxotorena Gamio (Ereñotzu, 1989)
- Bakarne Urreaga Etxeberria (Hernani, 1978)
- Egoitz Iradier Martinez de Albeniz (Zalduondo, 1996)
- Ekaitz Elorriaga Anduaga (Gasteiz, 1981)
- Eneko Bidegain Aire (Baiona, 1975)
- Eneritz Azkue Basurko (Mutriku, 1982)
- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo, 1970)
- Joseba Beltza Bengoetxea (Etxarri-Aranatz, 1983)
- Joseba Santxo Uriarte (Getxo, 1962)
- Jurgi Fuentes Goikoetxea (Mungia, 1981)
- Karlos Iburguren Olalde (Errenteria, 1965)
- Leire Beloki Lizarralde (Oiartzun, 1979)
- Maialen Berra Zubieta (Baiona, 1993)
- Mirari Azula Aurrekoetxea (Lekeitio, 1973)
- Miriam Juaristi Urizar (Zaldibar, 1991)
- Nerea Bruño Artazkoz (Atarrabia, 1978)
- Saioa Mitxelena Irazoki (Bera, 1978)
- Zigor Leunda Eizmendi (Amasa-Villabona, 1978)

Bodegas Lezaun

ASADOR - JATETXEA

BISITAK GIDATUAK MAHASTIETARA •
BISITAK GIDATUAK UPETEGIRA •
ARDO-DASTATZEAK •
BAZKARIAK ETA AFARIAK •
ARDOEN ZUZENKO SALMENTA •

📍 LAKAR -DEIERRI- (NAFARROA) ☎ UPEGIA: 948 541 339

WWW.LEZAUN.COM ✉ INFO@LEZAUN.COM

*Kentzen du egarriya
alaitzen du oso,
jartzen daki kantari
dantzan ta garboso;
urrezko edariya
edaten da gozo,
bañan ukalondorik
ez geiegi jaso.*

Ramon Artola - 1894




ZAPIAIN®
SAGARRETIK, URREA
zapiain.eus

Lehenengo fasea

GETXO

 Irailak 24, larunbata, 17:00

 Muxikebarri Zentroa

**AGIN**

Laburu
Rezola

Astigarraga, 1985

Hirugarren Txapelketa
Nagusia

**ENEKO**

Lazkoz
Martinez

Etxarri-Aranatz, 1983

Bigarren Txapelketa
Nagusia

**NEREA**

Elustondo
Plazaola

Legazpi, 1981

Laugarren Txapelketa
Nagusia

**OIHANA**

Bartra
Arenas

Bilbo, 1984

Laugarren Txapelketa
Nagusia

**PERU**

Abarrategi
Sarrionandia

Aramaio, 1997

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**UNAI**

Mendizabal
Jauregi

Zizurkil, 1992

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

Gai-emailea

Imanol

Artola Arretxe "Felix"

Lehenengo fasea

ARRASATE

 Irailak 25, igandea, 17:00

 Amaia Udal Antzokia



Parte-hartzaileei buruzko
informazio gehiago
Bertsolaritzaren Datu Basean:
bdb.bertsazole.eus

**GORKA**

Pagonabarraga
Agorria

Durango, 2000

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**IÑAKI**

Apalategi
Astigarraga

Beasain, 1982

Hirugarren Txapelketa
Nagusia

**JOANES**

Illarregi
Marzol

Leitza, 1999

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**MIREN**

Amuriza
Plaza

Berriz, 1990

Laugarren Txapelketa
Nagusia

**SAIOA**

Alkaiza
Guallar

Iruñea, 1991

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**Xabier**

Silveira
Etxeberria

Lesaka, 1976

Bosgarren Txapelketa
Nagusia

Gai-emailea

Ander

Aranburu Arriola

"Urtean 40 bat saio antolatzen ditugu"

40 urtetik gorako ibilbidea du ALBE Algortako Bertsolari Eskolak Uribe Kostan. Miren Loizaga eta Oihan Diaz ALBEko kideak elkarrizketatu ditugu, eskualdean egiten duten lana gehiago ezagutzeko.

1980an sortu zen Algortako Bertsolari Eskola. Nolakoak izan ziren hastapenak?

Miren Loizaga: Andoni Iriondo eta Trino Azkoitia izan ziren gaur egun ezagutzen dugun ALBE sortu zutenak. Zabala Herri Eskolan egiten zen, eta herriko beste euskaltzale eta bertsozale batzuekin elkartzen ziren. Topaketa informalak ziren. Orduko pasarteak jaso ditugu hurrengo belaunaldiok Trino beraren, Joseba Santxoren, Josu Landetaren eta Leire Iriondoren ahotik. Trinoren eskola deitzen dugun ariketa gustura egin dugu eskolatik pasa garen denok...

40 urtetik gora pasa dira. Asko aldatu da?

Oihan Diaz: Gaur egun bertso-eskola hainbat aspektutan formalizatu egin da, betiere, oso giro lagunkoia mantenduz. Batetik, eskola adinka banatzen dugu guztiei eroso kantatzeko espazio bat emateko. Saioen antolaketari dagokionean, urte osoan zehar eskaintza zabala daukagu.

Izenean "Algorta" badaramazue ere, Uribe Kosta osoan eragiten duzue.

M. L. Hala da. Ni neu Sopelakoa naiz, ikastolan bertsolariarekin lehen kontaktua izan eta gero, eskualdean bertso erreferentzia ALBE zen, eta oraindik bada: bai bertsolariarentzat, bai

bertsozaleentzat, zein kultur eragileentzat. Hau da, bertsoarako lekua izateaz gain, bertsolari eta bertsozaleasuna suspertzea dugu helburu, eta ez Algortan bakarrik, Uribe Kosta osoan.

O.D. Ez gara eskualdeko bertso-eskola bakarra, badaude Gorlizko piratak, adibidez. Baina egia da herri gehienetan ALBE dela bertso munduko erreferentzia.

Zenbat ikasle dituzue gaur egun?

M. L. Alde batetik, gazteen taldeak ditugu: eskolaz kanpokotan hiru talde daude eta bertso-eskolan bertan talde bat. Horietan, 22 ikasle ditugu. Beste alde batetik, 18 urtetik gorako beste hiru talde daude eta 25 bertsolari inguru elkartzen dira horietan. Ikasturte batzuetan, hasiberrien taldea ere sortzen da.

Plazara begira ere lan handia egiten duzue.

O.D. Urtean 40 bat saio antolatzen ditugu, oso estilo ezberdinetakoak. Saio berezi asko daude, baina bateren bat azpimarratzekotan Bertso Saio Mundiala aipatuko nuke. Baina horrez gain, Abra gazte sariketa, jaietako saioak, bertso afariak, Asebertsoz ekimena, eta ALBE eguna eta ALBE gala ere aipatu nahi nituzke. Horiek dira ALBEren ezaugarri direnak, urterokoak eta izaera ematen digutenak.



GURE
ESEN
TZIA!



Lehenengo fasea

GOTAIN-IRABARNE

📅 Urriak 1, larunbata, 17:00
📍 Herriko Gela

**ALAIIA**

Martin
Etxebeste

Oiartzun, 1987

Hirugarren Txapelketa
Nagusia

**ANE**

Labaka
Mayoz

Lasarte-Oria, 1992

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**JULIO**

Soto
Ezkurdia

Iruñea, 1987

Laugarren Txapelketa
Nagusia

**NEREA**

Ibarzabal
Salegi

Markina-Xemein, 1994

Bigarren Txapelketa
Nagusia

**OIHANA**

Iguaran
Barandiaran

Amasa-Villabona, 1991

Bigarren Txapelketa
Nagusia

**PATXI**

Iriart
Hiribarren

Hiriburu, 1988

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

Gai-emailea

Aritz

Bidegain Aire

Lehenengo fasea

GASTEIZ

Parte-hartzaileei buruzko
informazio gehiago
Bertsolaritzaren Datu Basean:
bdb.bertsoszale.eus

📅 Urriak 2, igandea, 17:00
📍 Europa Biltzar Jauregiko Maria de Maeztu entzunaretoa

**AMAIA**

Iturriotz
Etxaniz

Urretxu, 1993

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**HARITZ**

Mujika
Lasa

Asteasu, 1995

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**IBAN**

Urdangarin
Lardizabal

Ataun, 1985

Bigarren Txapelketa
Nagusia

**MANEX**

Agirre
Arriolabengoa

Aramaio, 1982

Bigarren Txapelketa
Nagusia

**MIREN**

Artetxe
Sarasola

Hendaia, 1985

Laugarren Txapelketa
Nagusia

**XABAT**

Galletebeitia
Abaroa

Lekeitio, 1986

Bigarren Txapelketa
Nagusia

Gai-emailea

Oier

Azkarraga Grajales

Iduri zait gure euskal uharteak sortzen eta mantentzen ditugula

1972an egin zen Gotaine-Irabarneko gela berrian lehen kantaldia: "Caudilloa bizi haraindian, hemen oholtzan gazte mukizu batzuk xaramelan: Etxamendi Larralde, Pantxoa ta Peio, Guk taldea, Oskarbi, Etxahun Iruri bera koblanan eta txirulan... Eta haur bat lehen lerroan, haien ziliportak gairitzen banan banan!" Orduan 9 urte zituen haur hura ari da, gaur egun, Xiru jaialdia antolatzen: Mixel Etxekopar, txistulari eta euskara irakaslea. Gela berean jokatu da Txapelketa Nagusiko saioa.

Udaberrian egin zenuten Xiru jaialdiaren 32. edizioa. Zer eskaini zuen Xiruk hiru egunez?

Musika eta sorkuntza Zuberoan. Urtez urte gurea eta sortzen dugunaren arteko zubi izan nahia, zaharrea berria bilatzen eta berria betikoa edireiten. Aurten, COVID ondoko, aurreko martxa berpiztu nahian izan gara.

Gotaine-Irabarnen hartzen du lur Xiruk. Herri txikian lan handiak.


Kantaldien garraren ondorioa izan zen Xiru, udaberria datorren bezala badakigu hor dugula. Utopia zen gure biotopoaren aldatzea, euskalduntzea (pixka bat), euskaltzalezea (beste pixka bat); eta zer? Gehienik aldatu dena ni naizela uste dut: zahartu bai, etsitu bai ere batzuetan, lotsatu ez aski horretan uzteko; hazi bai, ez kanpotik, baina barnetik espero. Eta batzuetan keinu ttipiek erraten digute ez garela (denetan) oker ibili: urtero petoak konpontzen ditugu, urtero berriak asmatzen tronpatzen, hobeki tronpatzen... Ez al da hau bitzita funtsean?

Eta aurrera begira?

2023. urtean, apirilaren 7tik 9ra izango da. Aste Santua batzuentzat, Xingar Santu feria iparraldekoentzat, eta Xiru zokokan laketzen direnentzat. Datorren urtekoa hogeita hamahirugarrena izanen da. Irabarneko ezkilak anjelusa jotzen du egunero, 33 danga hedatuz. Badakit norbait hil omen zela adin horretan, asmoa da bizitzea. Errealitateak ez du egunero euskaraz hitz egiten zoritxarrez. Baina iduri zait gure euskal uharteak sortzen eta mantentzen ditugula, ez baita hau aski (agian ez gaizki). Josean Artze lagunari aipatzen nion ene etsipen baikorra, harekin *Harria eta herria* sortu genuelarik, Iñaki Perurena bidelagun; eta usurbildarrak orduan erantzun: "Baina Mixel, partida galdurik ere, ez al du merezi jokatzeara?"



Mixel Etxekopar



Zure energia instalatzaileak gara!



EGUZKI ENERGIA
PLAKAK



DOAKO
ENERGIA ITURRI
MUGAGABE ETA
JASANGARRIA



Aurreztu.

Doako energiaren eskutik kostuak gutxitu eta indartu zure ekonomia... lehenengo egunetik.



Ecofriendly.

Ingurumenarekiko gure konpromezua da... ¡Zaindu dezagun, gure energia da!



Burujabetza.

Konekta zaitetz zure energiara... ¡Sortzen duzunaren kontrola zure esku dago!

Energia berdea zure esku!

Zubikoeta, 9 - 1. pab. / 20211 Ataun Gipuzkoa / T 943 889 594
www.tapiaenergia.com

Lehenengo fasea

DONOSTIA

📅 Urriak 8, larunbata, 17:00
📍 Victoria Eugenia Antzokia

**AITOR**

Etxebarriazarraga
Gabiola

Gernika-Lumo, 1993

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**BEÑAT**

Iguaran
Amondarain

Amasa-Villabona, 1988

Bigarren Txapelketa
Nagusia

**EÑAUT**

Martikorena
Lizaso

Hernani, 1995

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**JONE**

Uria
Albizuri

Getxo, 1990

Laugarren Txapelketa
Nagusia

**MADDALEN**

Arzallus
Antia

Hendaia, 1990

Hirugarren Txapelketa
Nagusia

**ONINTZA**

Enbeita
Maguregi

Muxika, 1979

Bosgarren Txapelketa
Nagusia

Gai-emailea

Leire

Garatxena Larrabe

Lehenengo fasea

LIZARRA

📅 Urriak 9, igandea, 17:00
📍 Los Llanos Kulturgunea



Parte-hartzaileei buruzko
informazio gehiago
Bertsolaritzaren Datu Basean:
bdb.bertsozale.eus

**AITOR**

Bizkarra
Ruiz

Abadiño, 1996

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**ASIER**

Azpiroz
Iztueta

Zubieta, 1991

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**IMANOL**

Uria
Albizuri

Getxo, 1993

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**IÑIGO**

Mantzizidor
Larrañaga "Mantxi"

Zarautz, 1977


Laugarren Txapelketa
Nagusia

**MAIALEN**

Akizu
Bidegain

Urretxu, 1996

Lehenengo Txapelketa
Nagusia

**UNAI**

Gaztelumendi
Arandia

Añorga, 1988

Bigarren Txapelketa
Nagusia

Gai-emailea

Amair

Lujanbio Agirre



Bertsolaritzaren memoria eraikitzen

Bertsolaritzaren ondarea biltzeaz, antolatzeaz eta gizarteratzeaz arduratzen da Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Bertso saioetan kantuan, gai jartzen edota epaitzen aritzen direnentzat ez ezik, oso preziatua da eskaintzen duten zerbitzua ikertzaileentzat eta hedabideentzat ere, besteak beste.

Abuztuak 15. la Euskal Herri osoko txoko guztietan bezala, jaiak dira Donostian ere. Grabagailua hartuta, hara joan da Lierni. Audio teknikariari irteera eskatu, eta argi gorria piztuta grabatzen hasi da grabagailua. Igo dira bertsolariak eta gai-jartzailea oholtzara: "Eguerdi on, denoi. Ongietorri..." hasi da saioa.

Hemendik aurrerakoa bat-batekoa izango da. Gogoratzeko moduko harribitxirik bada, gordeta geratuko da han elkartutako donostiarrentzat ez ezik, interesa duen ororentzat. Hori Lierni jasotako material horrek egingo duen bideari esker.

Amasa-Villabonako Subijana Etxean kokatutako Xenpelar Dokumentazio Zentrora eramango du. "Saioen grabazioak egiten dituzten biltzaile finak ditugu, baina gehiago ere gustura hartuko ditugu" dio Xenpelarreko Oihana Aranburuk. Dokumentazio zentroko lantaldeak tratatuko du edukia, eta han jaso aurrerantzean behar duenak eskuragarri izan dezan: "Argazkiak, audio eta bideo grabazioak, dokumentuak... denetarik jasotzen dugu", dio Olatz Amundarain lankideak.

Material hori bertsolaritzaren memoria osatuko duen ondare bilakatuko da dokumentazio zentroan jaso, antolatu eta gizarteratzean: "Bertsolaritza mugimenduak, sorkuntza kolektiboa izanik, ezagutza ere modu kolektiboan jasotzea ezinbestekoa du", adierazi du Aranburuk. 1991tik darama zeregin horretan Xenpelar Dokumentazio Zentroak.



Biltegian eta digitalean

Saioaren audio grabazioari dagokion fitxa beteta, dokumentazio zentroan gordeko da; eta Donostiako saioaren bila dabilen herritarren batek bdb.bertsozale.eus atarian topatu ahal izango du erreferentzia: "Atarian bertan ere baditugu digitalki jasotako zenbait audio grabazio eskuragarri", gogorarazten dute Xenpelarrekoek.

"Helburua ez da guztia jasotzea, bilduma anitz bat eskaintzea baizik. Adibidez, 2021 urtean Euskal Herrian zehar egin ziren 1.200 bertso ekitaldi ingurutik 250 grabazio bildu genituen", azaldu du Aranburuk: "Urtez urte jasotako grabazioen lagin hori izaten da gero bertsoen ikerketetarako nahiz dibulgaziorako baliatzen den bilduma".

Bertsoaldien eta saioen erreferentzia eta fitxategiez gainera, hainbat datu-base elkartzen dira bdb.bertsozale.eus atarian: "Doinutegia, bertsolaritza mugimenduko eragileen biografiak, ekitaldien inguruko

datuak jasotzen dituen..."; gogorarazi du Amundarainek.

Dokumentazio zentroak eskaintzen duen zerbitzua oso preziatua da, bereziki, ikertzaileen eta hedabideen artean. Bertsolariek ere jo ohi dute Xenpelar Dokumentazio Zentrora beste bertsoaldi batzuekin elikatzea eta nahi duten hori hobetzeko baliabide bila.

Gaur Lierniren grabazioa izan da. Bihar Iñigoren argazkiak, eta Pelloren bertsopaper zaharrak etzi. Horrela, etengabe, bertsolaritzak egunero egiten duen arrastoarekin aurrerako bidea egiten eta bertsolaritzaren memoria eraikitzen. Beti eraikitzen. Etengabe elikatzen ari den eta gaituen behatoki dinamikoa baita Xenpelar.

Ikerketen iturburu

Urte luzetan bertsolaritzak sortutako material andana dagoenez, ikertzaileentzako iturri garrantzitsua da Xenpelar Dokumentazio Zentroak eskaintzen duena: "Ikerketen oinarria ahozko iturria izanda, momentuan biltzen ez dena galdu egiten da betirako; urte hauetan guztietan egindako bilketa lanari esker egin daitezke ikerketa hauek", dio Xenpelarreko Itsaso Noyak.

Azken urteetan, Bertsozale Elkartek lehendabizi Mintzola Fundazioaren bidez eta orain bere kabuz eta zenbait erakunderekin batera, hainbat ikerlan eragin ditu. Mintzola sortu zenetik 90 ikerketa inguru burutu dira, tartean 15 doktorego tesi, eta horietan guztietan Xenpelar eta Bertsozale Elkarteko

HAMARREKO TXINPARTA
Berezartua
Sagardo Naturala 1870etik

Bere-Aran Etxea
Iparralde Bidea, 16
20015 ASTIGARRAGA
Diputakoa
Tel (+34) 943 55 57 98

@SBerezartua Sidras Berezartua Sagardoak Sidreria Berezartua sidrasberezartuasagardoak

BENETAKO ARTZAI GAZTA
EL AUTÉNTICO QUESO DE PASTOR

ARTZAI GAZTA ELKARTEA

www.artzai-gazta.eus

Idiazabal

Kale Nagusia, 37 - Idiazabal
T. 943 18 71 29

Erreportajea

ikerkuntzako eragilea aritu dira ikertzaileekin batera bidea egiten: "Lehenengo pausoa ikertzailearekin elkartzea izaten da, elkar ezagutzeko eta ikerketaren nondik norakoak azaltzeko", azaldu du Noyak eta jarraitu: "Askotan ideia batekin etortzen dira, baina dokumentazio gehiegi dagoenetan, gaia fintzea eskatzen du, eta hutsuneak dauden kasuetan gaia birplanteatzea. Dokumentazioaren ikuspegitik gaia kokatzen laguntzen diegu".

Liburutegitik hasi ohi da ikertzailea, eta hortik abiatuta eta ikergaien arabera, Xenpelarreko gainerako ataletara jo ohi dute: doinuak, bertsoak, grabazioak... "Xenpelarren ez dagoen informazioa bilatzen ere laguntzen diote ikertzaileari.

"Gurekin harremanetan jar daiteke bertsoaritzaz aztertzeko aholkularitzaz behar duen ikertzaile oro", egin du gonbidapena Xenpelarreko lantaldeak.

Dokumentazio sarea eta zerbitzuak



HITZEZ EKITEKO GARAIA

Euskaraldiari esker, gauza asko lortu ditugu.
Eta aurtengoan, are gogo handiagoz,
euskara aktibatzen jarraituko dugu guztion artean.



2022ko AZAROAREN 18tik
ABENDUAREN 2ra




Bi ikerketa deialdi martxan

Hain zuzen ere, ikerketa gehiago eriteko bi hazi berri landatu dituzte aurten UPV/EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Bertsozale Elkarteak: Ikerketa Proiektu Sari bat eta GRAL Sari bat banatuko dira. Urriaren 18ra arte aurkez daitezke proiektuak eta lanak. Informazioa: www.bertsozale.eus

Lagunarteko eta plaza libreko saioek gora egin dute



2022ko lehen sei hilekoan bertso plazak emandako datuak bildu ditu Bertsozale Elkarteak. Pandemia garaian ia desagerturik egon diren saio formatuak beren lekua berreskuratzen hasiak dira, aldi berean, jaialdien kopuruari eutsiz.



Loraldi sasoia izan da 2022ko udaberria bertso laritzarentzat. Hala adierazten dute, behinik behin, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bidez Bertsozale Elkarteak jasotako datuek. 2022ko lehen sei hilekoan izandako bertso saio kopurua 2019kora dezente hurbildu da; are gehiago, martxotik maiatzera bitarteko epea aintzat hartuz gero, aurtengo datuak hobeak izan dira kopuruari dagokionez.

Kopuruaz harago, beste zantzu on batzuk ere ekarri ditu lehen sei hileko honek. Nabarmenena? Pandemia garaian ia desagerturik egon diren lagunarteko eta plaza libreko saioak beren lekua berreskuratzen hasiak direla bertso plazan.

Oro har, bi eta hiru bertsolarien artean egiten diren saio motak dira hauek, zalearengandik oso hurbil; otordu bueltan egiten dira lagunartekoak eta herriko plazan edo kalean egiten ohi dira librekoak. Pandemia garaian

hartutako neurriengatik nekez egin zitezkeen saioak, finean. 2022ko lehen sei hileko honetan, ordea, bertso plaza lehengo itxura hartzen ari dela iradokitzen dute datuek, formatuari dagokionez.

Gainera, aldi berean, jaialdi kopuruari ere eutsi zaio. Guztira 149 jaialdi egin dira, eta horietan 16.092 entzule izan dira (108 entzule batez beste).

Saio mota guztiak kontuan hartzen badira lehen sei hilekoan 36.500 zale hurbildu dira plazetara.

Hona hemen lau urteotako bilakaera erakusten duen grafikoa, eta horietan, lehen sei hilekoetan, izan diren datuak erakusten dituen taula.

2022ko lehen sei hilekoan 36.500 zale hurbildu dira plazetara



#JASANGARRI MODURA

kapsulakonpostagarriak.eus

BAQUÉ •Café•

PERU

Excavación Construcción

www.perusl.es


Polígono Errotalde, nave 1
Tlf: 943 65 37 21
20.270 Anoeta (Gipuzkoa)
obras@perusl.es

Erreportajea

Generoen arteko oreka

Lagunarteko eta libreko saioen itzulerak, gainera, ez du eragin handirik izan gizon eta emakume bertsolarien parte-hartzearen orekan, beti ere irakurketa binariora mugatzen ari garela kontziente izanda. Saio mota hauetan oraindik gizonezkoen parte-hartzea altuagoa bada ere, azken urteotan eman diren aurrerapausoei esker, 2019ko datuetatik urrundu eta azken urteotako norantza parekideari eutsi ahal izan zaio: bertso plazan ari diren %53 dira gizonezkoak eta %47 emakumezkoak.

Bertsozale Elkartek gainerako tokian tokiko eragileekin bertso plaza sendotzeko, genero ikuspuntutik orekatzeko eta askotariko plaza eskaintzeko lanean jarraituko du.



MAX zuntza

HEMEN DA ZUNTZA
POTENTZIA MAXIMOAN



10 Gb
simetrikoraino



Lag-Free



Wifi 6
unibertsala

Informa zaitez

euskaltel.eus/zuntzamax



Hemengoak Gara!

www.urzante.com



“Kontzientziazioa proposamen zehatzekin uztartzen ari gara, aliatuekin elkarlanean”

Euskal kulturako sortzaileen lan baldintza duinen alde lan egiteko sortu da LANARTEA, Euskararen Langile Profesionalen Elkarte. Elkarteko koordinatzailea da Amagoia Gurrutxaga Uranga.

Noiz eta nolatan sortu zen LANARTEA?

Orain lau urte. Lana eginagatik ere logelaren errenta ordaindu ezinean zebilen idazle-itzultzaile baten egoerak mugiarazi zituen hainbat sortzaile autonomo. Egile haren eskasiak ikusarazi zien euren egoera ere ez zela zeharo diferentea, eta antolatzen hasi ziren: diziplinakako diagnosiak eta batzarrak egin zituzten; LANARTEA elkarte erregistratu zuten 2020an; koordinatzaile bat –ni neu– hautatu zuten iaz elkartearen lanak bideratzeko; eta hamaika kultur eragile, erakunde eta banakorekin lanean ari dira orduetik.

Arlo ezberdinetako kultur sortzaileak elkartzen dira LANARTEAn. Oinarrian kezka beretsuak dituzte?

Bertsolari, idazle, itzultzaile, aktore, kantari, ilustratzaile... euskararen langile guztiek harriztar handi bera dute buruaren gainean. Autonomoek, bereziki. Ez maila sinbolikoan, eguneroko ekonomian baizik. Harri horrek ekarri du LANARTEAren sorrera, eta lau ertz ditu: euskararen subordinazioa; ekonomia eta ogasun sistema autonomikoen anabasa eta ezjakina; kontratu onartezinak onartu behar izatea industria pribatuan zein erakunde publikoetan; eta, *euskalgintza, herrigintza eta kulturagintza* kontzeptuen azpian hainbatetan dagoen abusua.

Elkarrizketa

Egun zein dira erronka nagusiak?

Asko dira fronteak, baina ildo hauetan ari gara oraintxe lanean: euskarazko kulturaren ikusgarritasuna eta prestigioa handitzeko bideak jorratu –kuotak ezarri, esaterako–; praktika onen gidak landu; sektoreko langileentzako –izan autonomo zein ez– zerga sistema arrazional eta bateratua ondu; lan erregimenari buruzko gogoeta sustatu; formakuntza eskaini... Oraingo eta geroko kulturgileei lan baldintza duinak eskaintzea da helburua, eta, horretarako, egoera azaltzen ari gara han-hemengo administrazioei eta gizarte osoari. Horri begira egin dugu, esaterako, *Loreak belaunetan*. *Kulturaren zazpi ahots gazte* dokumentala.

Kontzientziaioa proposamen zehatzekin uztartzen ari gara, sektoreko eta sektoretik kanpoko aliatuekin elkarlanean. Indar gehiago egin ahal izateko, ahalik eta bazkide eta babesle gehien lortzea ere helburu dugu.

Euskal kulturaren lurraldea administrazio ezberdinen pean dago. Horrek zaildu egiten du beren-beregi egokitutako trataera fiskala lortzea?

Jakina. Zeinek bere arau fiskalak ditu Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, eta Ipar Euskal Herriko kulturgileen araudia Frantziak ezarria da. Eusko Jaurlaritzak esana digu: "Ez dago gure esku, ogasunen eskumena da". Horretan ari gara, bada: bakoitza bere aldetik eta bere ezezagutzarekin ari diren ogasunentzako proposamen bateratu bat lantzen.

Sortzaileen baldintza desegokien atzean kulturari beste zenbait sektoreri adina balio ez ematea dagoela uler dezakegu?

Horixe da lehena. Herriaren ordezkari politiko eta eragile sozialen diskurtsoan inork ez du kulturaren sinesten. Hau, hori eta hura dira lehenetsunak, herria herri egiten duten hizkuntza eta kultura ez beste guztiak lehenesten dituzte gure administrazioek kulturaren izenean. Autogobernuaz, bizikidetzaz, eta, oroz lehen, diruaz ari dira, euskaratik abiatu sortzen dugun kultura beren egitekotik kanpora balego bezala. Kultur industriaz mintzo zaizkigu gero eta gehiago, euskaldunona kultura subordinatua ez balitz bezala. Bada, baina, eta badakigu kultur subordinazioa ezin dela gainditu merkatuaren lege hutsez.



Amagoia Gurrutxaga



SAIZAR
Sagardoa • Sidra Natural

www.sidrassaizar.com



Saioak

Saioak

Finalaurrekoak. Lehen itzulia.

ELIZONDO

📅 Urriak 22, larunbata, 17:00
📍 Baztan pilotalekua

Gai-emailea: **Amaia** Castorene Luro

UNAI Agirre Goia
Hernani, 1975

Seigarren Txapelketa
Nagusia

IRUN

📅 Azaroak 5, larunbata, 17:00
📍 Ficoba

Gai-emailea: **Maialen** Belarra Eneterreaga

SUSTRAI Colina Acordarrementeria
Urruña, 1982

Seigarren Txapelketa
Nagusia

DONIBANE GARAZI

📅 Urriak 29, larunbata, 17:00
📍 Jai Alai

Gai-emailea: **Zihara** Enbeita Gardoki

AMETS Arzallus Antia
Hendaia, 1983

Seigarren Txapelketa
Nagusia

DURANGO

📅 Azaroak 12, larunbata, 17:00
📍 Landako Gunea

Gai-emailea: **Ane** Ezenarro Beristain

AITOR Mendiluze Gonzalez
Andoain, 1975

Zazpigarren Txapelketa
Nagusia

BEÑAT Gaztelumendi Arandia
Añorga, 1987

Laugarren Txapelketa
Nagusia



Finalaurrekoak. Bigarren itzulia.

AMURRIO

📅 Azaroak 19, larunbata, 17:00
📍 Bañueta Kiroldgia

Gai-emailea: **Beñat** Vidal Gurrutxaga

BAIONA

📅 Azaroak 26, larunbata, 17:00
📍 Lauga

Gai-emailea: **Ainhoa** Larretxea Agirre

BILBO

📅 Abenduak 3, larunbata, 17:00
📍 Bizkaia Frontoia

Gai-emailea: **Idoia** Anzorandia Kareaga

Finala.

IRUÑEA

📅 Abenduak 18, igandea, 11:00
📍 Nafarroa Arena

Gai-emaileak: **Alaitz** Rekondo Ferrero / **Ion** Zaldua Brit

Maialen Lujanbio Zugasti
Hernani, 1976
Zazpigarren Txapelketa Nagusia



Zure herrian bertso saio bat antolatu nahi duzu?

Jar zaitez gurekin harremanetan lanku@lanku.eus helbidean edo (+34) 943 26 07 55 zenbakira deituta.

Bertso saioen informazioa eta askoz gehiago

Sar zaitez www.lanku.eus atarian!



Pierre Teiza

Hazle - Eskulangilea

Aldude - 64430
+33 (0)5.59.37.56.11

GURE SALTEGIAK :

Aldude · Donibane Garazi ·
Ainhoa · Donibane Lohizune ·
Miarritze · Baiona ·
Capbreton · Bordale · Parise

— www.pierreoteiza.com —



Elkarlanean Euskaltzaindiarekin

Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarateak bost urterako lankidetzara hitzarmena sinatu dugu. Euskararen eta euskal kulturaren sustapenerako egitasmoak bultzatuko ditugu elkarrekin.

Ekainaren 22an aurkeztu zen Bilbon, Euskararen Akademiaren egoitzan, aurtengo Bertsolari Txapelketa Nagusia. Ez zen ausazko aukera izan. Bertsolari Txapelketa Nagusien sorreran ezinbestekoa izan da Euskaltzaindiaren ekimena, ondoren, Bertsozale Elkarateak haren antolaketa hartu arte.

Zehazki, Euskalzaleak Bazkunak, Eusko Gaztedik eta Euskaltzaindiak antolatu zituzten lehenengo zortzi Bertsolari Txapelketa Nagusiak: gerra aurretik jokatu ziren lehen biak, 1935ean eta 1936an, eta 1958an, txapelketak antolatzeko ardura hartu zuen ostera ere Euskaltzaindiak. Hala, 1982. urtera arte, beste bost edizio antolatu zituen Euskararen Akademiak. 1986 urtean hartu zuen txapelketaren ardura Euskal Herriko Bertsolari Elkarateak, gaur egun, Euskal Herriko Bertsozale Elkaratea denak.

Bereziki, aurten, bi erakundeen bideak berriro ere elkar gurutzatu dira, helburuetan bat etorrita. Pasa den apirilaren 1ean bost urterako lankidetzara hitzarmena sinatu genuen Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarateak.

Gaurko bertsozaintzaren hizkuntzaren ikerketa


"Euskaltzaindiak pozik hartzen du elkarrekiko lankidetzaren eraberritze hau, eta etorkizunerako oinarriak ikusten ditu bertan", adierazi zuen Andres Urrutia Euskaltzainburuak hitzarmena sinatu zen egunean. Elkarrekin urtez urte euskaraz sortutako testu corpusa sendotzea eta bertsolariak kantuan darabilten hizkuntzaren azterketa linguistikoa gauzatzea dira elkarlanaren oinarriak.

Bestalde, Mintzola Fundazioak abian jarrita zituen proiektuei elkarrekin emango zaie segida: ahoz eta euskaraz egiten diren kultur diziplinak elkartzen dituzten Ahostegunak eta Ahots Baten egitasmoak, kasu. Euskaltzaindiak hartuko du bere gain Mintzola proiektu eraberritua; ikasturte honetan izango dugu haren nondik norakoen berri.

Euskaltzaindiak eta Bertsozale Elkarateak ikerketa deialdi berria egitea adostu dute. Gaur egungo bertsozaintza hizkuntzalaritza ikuspegitik ikertzeko deialdia plazaratuko dute aurtengo udazkenean. Deialdiari buruzko xehetasun oro www.euskaltzaindia.eus eta www.bertsozale.eus en egongo dira ikusgai.



Ez da nahikoa itsaso eskuzabal bat edukitzea, gure abereak gurtzea, ezta lur emankor bat izatea ere. Zerbait gehiago behar da. Horregatik, **Euskadin kalitate goreneko 18 produktuek** jatorri, zapore eta benekotasun zigilua dute.



Onenetan,
onena.

hazi



Finala: informazio praktikoa

IRUÑEA

 Abenduak 18, igandea

 Nafarroa Arena

 Goizeko saioa: 11:00. Arratsaldeko saioa: 16:30

Jende asko batuko gara finalaren egunean, eta Bertsozale Elkartetik, kontuan izateko zenbait ohar garrantzitsu eman nahi ditugu.

Informazio orokorra

- Entzule bakoitza dagokion eremura sartu beharko da, eta, behin barruan, ezingo du eremu batetik bestera pasa.
- Eremu bakoitzak bere sarbide propioa du: harmailetarako A, B zein C ateak erabili beharko dira; pistaarako, Pista1 eta Pista2 sarrerak, eta, erreboterako, A sarrera.
- Eremu bakoitzeko eserlekuak ez dira zenbakituak.
- Goizeko saioa amaituta, Nafarroa Arena hustu egingo da. Antolakuntza ez da entzuleak lekua gordetzeko utz ditzakeen objektu pertsonalen arduradun egingo.
- Aretora ezingo da objektu puntadunik (tartean, aterkirik), beirarik, latarik, alkoholik edota sua eragin dezakeen materialik sartu. Objektu horiek, bazkarirako janaria bezala, Sadar estadioan jarriko den kontsignan gorde beharko dira, 08:00etatik aurrera.
- Aretoaren arkitekturak ez du pankarta edo antzekorik zintzilikatzea baimentzen, publikoaren ikusgarritasunean eragingo lukelako.
- Hautzaindegi zerbitzua egongo da, eraikinean bertan, baina ez saioa ikusteko moduan. Aurrez izena eman behar da txapelketanagusia@bertsozale.eus-en.
- Aniztasun funtzionala duten pertsonak izan ditzaketen behar bereziei erantzuteko, finala baino lehen antolakuntzarekin harremanetan jartzea eskertuko genuke, txapelketanagusia@bertsozale.eus helbidean.
- Areto barruko tabernak irekita egongo dira saioan zehar. Hara zein komunera joateko, bertsoaldi arteko tartek baliatu beharko dira, bertsolarien jarduna errespetatzeko.

BTN22 FINALA



Garraioak

Garraio publikoa edo antolakuntzak jarritako autobusak erabiltzea gomendatzen dizugu.

Autobusak:

- Finalera autobusez joateko aukera eman nahi dizu Euskal Herriko Bertsozale Elkartek, Aizpurua Autobusak taldearekin lankidetzan. 15 euro balio du autobus txartelak, edozein tokitatik abiatzen dela ere.
- www.bertsozale.eus atarian kontsultatu abiapuntu guztiak.
- www.bertsosarrerak.eus atarian izango duzu autobus txartelak erosteko aukera izango duzu, irailaren 19an hasi eta abenduaren 4ra bitarte.
- Sarrerak berak adieraziko dizu zein geltokitan hartu behar duzun autobusa.
- Euskal Herriko Bertsozale Elkartek abenduaren 12an jakinaraziko du autobus bakoitzaren ibilbidea eta ordutegia, www.bertsozale.eus-en eta zure posta elektronikoa jasoko duzun mezuan.

Garraio publikoa:

- Iruñerriko autobus zerbitzu publikoko 1, 6, 9, 11 eta 16 lineek konektatzen dute Nafarroa Arena (edo inguruak) hiriko erdigunearekin zein beste auzoekin. Ordutegiak eta prezioak: www.infotuc.es

Autoak:

- Planoan agertzen diren aparkalekuez gain, besterik balego, www.bertsozale.eus webgunean argitaratuko litzateke.



Bazkariak

Nafarroa Arenaren inguruetan, bazkaltzeko bi aukera eskainiko ditu Bertsozale Elkartek.

- Sadar estadioan, etxetik eramandakoak estalpean jan ahal izateko aukera izango da. Estadioko taberna eta komunak erabilgarri izango dira, baita kontsigna zerbitzua ere.
- NUPeko kirol instalazioetan, Zubillaga Catering enpresak eskaintako bazkaria, 24 euroan. www.bertsosarrerak.eus atarian izango duzu bazkari txartela erosteko aukera eta menuari buruzko informazioa (aukera begetarioa ere egongo da), irailaren 19tik aurrera.



Finalean boluntario aritu nahi al duzu?

Bertsozale Elkartek laguntza behar du Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko lanak gauzatzeko.


- Egun osoko lana izango da: goizeko lehen ordutik iluntzera. Bertsozale Elkartek sarrera eta bazkaria eskaini eta istripu aseguru bermatuko dizkizu. Txanda gehienetan saioa jarraitzeko modua izango da, ez noski beste edozein entzuleren baldintza beretan. Adinez nagusia izan behar da izena emateko.
- Lagundu nahiko bazenu, bete ezazu www.bertsozale.eus webgunean aurkituko duzun formularioa, edo deitu (+34) 948143747 telefonora.

Finala: informazio praktikoa

Finala: informazio praktikoa

**NAFARROA ARENA**

- Pistarako sarrerak:
Pista 1 eta Pista 2
- Harmailarako sarrerak:
A, B eta C sarrerak
- Erreboterako sarrera:
A sarrera



dakienak gorria nahi du

% 100 bertako sagarrekin egindako Euskal Sagardoa



hazi



"Errepara diezaiogun egindako bideari, bidea egiten jarraitzeko"

Bertsolaritzaren bilakaera aztertzen ari da Unai Irigarai ikertzailea. Euskarabideak eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak sinatutako hitzarmenaren harira osatuko du ikerketa. Bertsolaritzaren dokumentazioa ere finantziatzen du hitzarmenean adostutako funtsak.



Unai Irigarai

Nafarroako bertsolaritzaren dokumentazioa eta ikerkuntza programa garatzeko hitzarmena sinatu dute aurten Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuak eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak. 2022ko azaroaren 10era bitarteko iraupena izango du hitzarmenak, eta 40.000 euroko zuzkidura du.

Bertsozale Elkarteak, bertsolaritza geroratzeko helburuari jarraiki, dokumentazioa eta ikerkuntza bere jardunaren oinarritzat ditu. Bertsolaritzak eragindako ondarea biltzeko eta dokumentatzeko ahaleginean aritzen da


Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin batera; besteak beste, urtean zehar egiten diren bertso ekitaldiak dokumentatzen (audio eta bideo grabazioak, argazkiak, transkripzioak,...) eta bertsolaritzarekin lotutako biografiak eguneratzen. Eta aurten, Nafarroan egiten den lan horrek aitortza eta finantzazioa jaso ditu Euskarabidearen eskutik.

Gainera, lurraldean bertsolaritzak izan duen bilakaera aztertzeko ikerketa egiteko aukera eman du. Unai Irigarai Osés ari da ikerketa hori osatzen: "Azken 15 urte hauetan Nafarroako bertsolaritza plazak izan duen argazkiari erreparatu nahi dio ikerketak. Argazkiari soilik ez, baizik eta argazki horren gibelean dauden hainbat elementu soziologikori ere; tartean, genero arrakala, belaunaldi berrien sartzea, eremu desberdinetan bertsolaritzak duen presentzia eta bertze hainbat joera soziologikori ere", azaldu du Irigarai.

Hasierako fasean da orain ikerketa hau – udan galdetu diogu Unai Irigarairi -, argazki orokorrari erreparatuz eta ondorio nagusiak ateratzen: "Udazkenarekin batera iritsiko da argazkiaren gibelean dauden arrazoiak bilatzeko tartea eta ikerketaren emaitzak aurkeztekoa ere. Errepara diezaiogun bideari, bidea egiten jarraitu ahal izateko".

Bertsolari Txapelketa Nagusia

Ongi etorri!



metro bilbao

Udazkenean, txapelketa hitzetik hortzera



Denboraldi berriari ekingo dio Hitzetik Hortzerak irailaren 18an. Abendura bitarte, txapelketari begirakoa izango da programa, eta ohiko martxara itzuliko da ondoren.

Txapelketa Nagusiak bete-betean eragingo dio Hitzetik Hortzera saioari. Hala, denboraldiak bi sasoi izango ditu: irailaren 18tik abenduaren 11rainokoa lehena, txapelketari lotutakoa, eta urtarrilaren 15tik apirilaren 9ra artekoa bigarrena, txapelketa amaituta, bertsolaritzaren prisma zabalago bat eskainiko duena.

Azken lau denboraldietan bezala, Eider Perez aurkezlea izango dugu bidelagun. Aitzitik, Gaizka Azkaratek zuzentzen duen programak gidoilari berria izango du: aurrerantzean, Mirari Martiarenak izango du ardura hori.

Programa igandean eskainiko da, 15:00etan. Bertsolaldiek hartuko dute programaren zatirik handiena, txapelketako saioek: "Larunbateko saioan ondutako bertsolaldiez gozatzeko aukera izango da hurrengo egunean bertan", azaldu du Gaizka Azkarate Hitzetik Hortzera saioko zuzendariak.

"Aurpegi eta ahots asko" agertuko direla ere aurreratu du: *Izan zirenei galdezka atalean,*

plazan dabilzan bertsolariak ariko dira txapelketari loturiko galderak erantzuten; A ze saioa atalean, bestalde, Eider Perezek eta Idoia Torregaraik txapelketari buruzko elkarrizketa umoretsuak egingo dituzte. "Ohikoa den bezala, saio bakoitzean pertsona edo leku baten inguruan ariko gara", gehitu du Azkaratek.

Bi programa berezi gehiago ere eskainiko dira abenduan, finalaren bueltan.

EITBk eta Bertsosale Elkartek ekoizten dute Hitzetik Hortzera elkarlanean. Hogeita hamahirugarren denboraldia du martxan dagoen hau.

Hitzarmen berria

Bertsosale Elkartek eta Euskal Irrati Telebistak udan itxi dute akordio berria. EITBko saioak osatzeko bitartekoak adostez gain, beste hedabideek bertso saioetako irudiak baliaitzeko eta bertsolaritza lantzeko baldintzak jaso dituzte.



Zuzenekoak

EITBk eta Bertsosale Elkartek duten elkarlana programatik harago doa, eta bien artean eskainiko dira txapelketako zuzeneko emankizunak. Finalurrekoetatik aurrera izango da hori, ETB4en eta www.eitb.eus eta www.bertsoa.eus atarietan.

Bertsoa.eus

Txapelketa osoan zehar bertsolaldiak, kronikak, protagonisten hitzak... 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren berri zuzena eta berehalakoa jasoko duzu Bertsoa.eus atarian.

Argindarraren plazan,
sorkuntza idea,
hazi baino hezteak,
ez neurri libreak.
Goienaren denona da
zurea, nireak,
energia-iturri
baita bazkidea
10 urtez argitu
duena bidea.

Baliatuz sormena
eta ausardia
lortzen da argindar bat
berdea, garbia.
Bertsolariek duten
txisparen erdia
noizbait bihurtu ahal
balitz energia
luzerako izango
genuke argia.



Hedabideak

Hedabideak

BERTSOLARITZAREN BOZGORAILUAK

Bertso saioak eta bertsolaritzaren mugimenduari dagokiona han eta hemen zabaltzeko lankide bikainak ditugu hedabideak; urte osoan nahiz txapelketan.

Prentsa, irrati, telebista nahiz atari; hainbat komunikabidetan jarrai daiteke bertsolaritza urte osoan zehar.

Ahozko kultur diziplina izanik, bertsolaritza jarraitzeko bide egokia izaten da irrati, eta Euskal Herri osoko hainbat irratsaioekin hitzarmena du Bertsozale Elkarteak. Hala, Xenpelar Dokumentazio Zentroan jasotzen diren bertso saioak zerbitzatzen zaizkie astero irratsaioei; halaber, irratsaio horiek grabatzen dituzten bertso saioekin elikatzen dute Xenpelar.

Hauek dira egun urte osoan zehar gauzatzen diren irratsaioak:

- Hitza Jolas (Euskadi Irratia)
- Bapateko Unibertsoa (Arraio Irratia)
- Bertsoinka (Xorroxin Irratia)
- Bertxoko (Hala Bedi Irratia)
- (H)ari Naizela (Ataria Irratia)
- Orri zurixe (Laixiar irrati)
- Potto (Bilbo Hiria Irratia)
- Punttuka (Euskal Irratiak)



Bertsolaritza irratsaio bat egitekotan bazara eta zerbitzuaren berri izan nahiko bazenu, idatzi hedapena@bertsozale.eus helbidera.

Txapelketako hedabide laguntzaileak



puntutan

Bertsozale jantzientzat arropa denda

Bertsoa oinarri duten diseinuekin janzteko aukera ematen du Puntutanek.

Zuk neurria eta kolorea aukeratu besterik ez duzu egin behar.

Bertsolari Txapelketa Nagusiko arropa salgai

www.puntutan.eus

DONOSTIA DONOSTIA DONOSTIA Euskararen Hiria

Ziudade horrek badu aparteko grazia, estimatzen dute euskaldun guzia.

...
hargatik esaten dut hiba Donostia!

Pello Errota

Bideak denontzat jartzen

Bertsozale Elkarteak kontzientziaz ari da lanean bere egitura eta egitasmoetan ikuspegi feminista txertatzeko. Pauso esanguratsuak eman dira azkenaldian norantza horretan. Oraindik ere bada zer urratu, eta lanean jarraituko dugu horretarako ondu ditugun tresnak iparrorratz hartuta.

Eraso matxisten kudeaketarako protokoloa

Emaginekoen aholkularitza lagun eta haiek prestatutako *Elkarte eta kolektiboetan eraso matxisten kudeaketarako protokoloak egiteko gida* abiapuntu hartuta, Bertsozale Elkarteak eraso matxistei aurre egiteko protokolo propioa osatu du. Taldean egindako eztabaida eta gogoeta prozesu baten bidez ondu da.

Plan feminista

Egituran nahiz egitasmoetan ikuspegi feminista txertatzeko plan feminista diseinatu du Bertsozale Elkarteak. Epe ertainean zein eszenatokitan egon nahiko genukeen zehaztuta, hara bideratuta lan egiteko plangintza da. Bertsozale Elkarteko egiturako hainbat kidek diseinatu dute proposamena, eta plana ekintzez osatzen dihardu prozesu baten bidez. Farapi Kooperatibak egin ditu aholkularitza lanak.

Topaketak

Bertsozale Elkarteak nahiz Lanku Kultur Zerbitzuak antolatzen dituen bertso saioetan askotariko ahotsei lekua emateko lanean ari gara etengabe. Azken urteetan plazako datuek erakusten dutenaren arabera, eta betiere irakurketa binariora mugatzen ari garela kontziente izanda, saio mota gehienetan, gizonen eta emakumeen partehartzea gero eta orekatuagoa da. Gainera, emakume bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta bestelako eragileen ahalduntzerako topaketak antolatu izan dira Bertsozale Elkartetik, Bizkaiko Bertsozale Elkartean eta Nafarroakoan, kasu.




Agour

IZAN DIRELAKO GARA

ARTZAINZAREN GEROAK TRISTE DU BEGIA,
LAN HUNEK GALDEGITEN DU ODOL BERRIA
MAITATZERAT ARDIAK, HEIEKIN HERRIA
LEHIA ZAZU, JAUNA, GURE GAZTERIA!

“Xalbador”



AGOUR ETXEA
AGOUR.COM



Euskal Herriko ia 30.000 ikaslek lantzen dute bertsolaritza ikastetxeetan

Bertsozale Elkartek hezkuntzan duen proiektuari esker 50 irakasle ari dira 7 lurraldeetako 500 ikastetxe baino gehiagotan ume eta gazteekin bertsolaritza lantzen.

Ikasturte honetan ere bertsoaren munduan murgiltzeko aukera izango dute Euskal Herriko hainbat txokotako ikasleek. Bertsolaritza ikastetxean programari esker, hamaika herritara iristen da bertsoa, eta ia 30.000 dira azken urteotan bertsolaritza jasotzen duten ikasleak.

Joan den ikasturtean, 2021-2022an, 7 lurraldeetako 511 ikastetxetan eskaini dugu bertsolaritza proiektua: 29.972 ikaslek landu dute bertsoa Bertsozale Elkarteko 50 irakasleen eskutik. Aurtengo ikasturtean ere, antzerako datuak izatea espero dugu.

Material berria

Bertsozale Elkarteko hezkuntza materiala koordinatzen du Ixiar Eizagirik. Berak azaldu digunez, etengabeko berrikuntza egiten dute ikasmaterialari dagokionez. "2018an sortu genuen www.bertsoikasgela.eus ataria, eta bertan biltzen da daukagun material guztia; bertan aurki daitezke bertso saio



BENETAKO BASERRIKO OILASKOIA



Belardian aske hazitakoa



EUSKO LABEL EGIAZTAGIRIA DUEN OILASKO BAKARRA

Erreportajea

musikatuak, azalpen dinamikoak, pantailako jolasak... horiek guztiak etengabe berrikusi eta berritzen ditugu", adierazi du. Gainera, iazko ikasturtean, *Zozoak beleari... koplabi!* ikasliburu berria argitaratu genuen, eta aurtengorako liburuaren bigarren zatia ere prest daukagu: bertsolaritza bigarren urtez lantzen ari direnentzako ikasliburua.

Liburuez gain, ikasgela zein bertso-eskoletarako sei karta sortaz osatutako bilduma ere badago, 2021ean argitaratuak horiek ere. "Haurrek bat-batean jarduteko unean makuluak edo heldulekuak eskaintzen dituzte karta-jolasek, aukera zabala eskaintzen dute errazenetik zailagoetara", azaldu du Eizagirrek.

Material hori guztia bertsolaritza irakasleek eurek sortzen dute: "Gelan hurrekin zerk funtzionatzen duen zuzenean frogatzen dutenak dira irakasleak, hortaz, baliatuko den materiala sortzen dutenak beraiek izatea garrantzitsua da", dio. Gaineratu duenez, taldean egiten dute, herrialdeka antolatuta dauden irakasle mintegien bidez. "Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdi-Baxenabarre-Zuberoako irakasle mintegiak artikulatuta egiten dugu lan, mintegi

Bertsoikasgela.eus atarian
biltzen da daukagun
material guztia

bakoitzeko pedagogia arduradunak elkartzen garelako Batzorde Pedagogikoan: elkarrekin materialaren oinarriko diseinua egiten dugu eta lantaldeak koordinatu", azaldu du.

Irakasleez gain, lantaldetik kanpoko bertsolariei ere eskatzen zaizkie kolaborazioak, gelan landuko diren eduki didaktikoen inguruan umeei zuzendutako bertso sortak jar ditzaten. Horiek ere bertsoikasgela atarian jartzen dira.

Ikastetxeetatik, bertso-eskoletara

Gaztetxoetako asko bertsolaritza ikastetxean probatu ostean zaletzen dira, eta orduan egiten dute salto bertso-eskoletara. Zure inguruan zein bertso eskola dagoen jakin nahi baduzu, jar zaitez herrialdeko Bertsozale Elkartearekin harremanetan.



EROSI ETA KONTSUMITU BILBON, ILUSIOZ GAINEZKA

Babestu zeure auzoko komertzioa
eta ostalaritza, bertokoak.



#Bilbao2022

B
Bilbao

LEHIA KETA

Iruñean jokatu den finala bertatik bertara bizi nahi? Finalerako bi sarrera zozkatuko ditugu ondorengo galderak zuzen erantzuten dituzten zaleen artean.

Apunteak eskura dituzula egiteko moduko azterketa da, gainera. Izan ere, erantzun guztiak 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiari buruzko liburuan topatuko dituzu; paperean ez ezik, bdb.bertsozale.eus atarian ere topatuko duzu argitalpena, eta bertan txapelketa horri buruzko hainbat datu topatuko dituzu.

Bidali erantzunak azaroaren 30eko 12:00ak baino lehen bertsozale@bertsozale.eus helbidera. Egun horretan egingo dugu zozketa, eta jarriko gara harremanetan saridunarekin.

Erantzun zuzenak eta saridunaren izena www.bertsozale.eus webgunean eta sare sozialetan argitaratuko ditugu.

Zorte on!

- 1 Matematika**
Zenbat bertso puntuagarri kantatu ziren 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian?
- 2 Geografia**
Zein aretotan hasi zen 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia?
- 3 Historia**
Zein bertsolarik kantatu zuen 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko goiza bukatzeko agurra?
- 4 Musika**
2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian atera ziren 23 doinu berrietatik 22 bakarkako lanetan atera ziren, eta bakarra ofizioetan. Zein doinu?
- 5 Bazen behin...**
Zein aretotan kantatu zen Basarrik irabazi zuen lehen txapelketan ?
- 6 Gizarte ohiturak**
Bertso Eskolen Eguna ospatu zen 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko saio batekin kointzidituz. Zein herritan izan zen?
- 7 Bazen behin...**
Zein aretotan jokatu izan dira Txapelketa Nagusietako final gehien?
- 8 Matematika**
2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian zehar, bi berdinketa gertatu ziren sailkapen orokorrari begiratuz gero. Nortzuk izan ziren kasu horietako bakoitzean berdinduta geratu ziren bertsolariak?
- 9 Geografia**
"Baigorri, Segura, Leitza, Zalla Zumaian hantxe zinen fin Tolosa Bastida, Irun, Maule Durangon ta Amurrion berdin"
Horrela hasten zen finalurrekoetako agur bat. Non kantatua?
- 10 Historia**
Zein finalurrekoetan kantatu zuen Amets Arzallusek 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian?
- 11 Musika**
Saio berean lau doinu berri kaleratu ziren 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Non?

*Jaso duguna eskainiz,
daukaguna berrituz,
garena izaten jarraitzeko.*

Petrilegi
Asligarra, 1526



petrilegi.eus

Jarraipen taula

Txapelketako fitxategi sekretuak



Urte luzeko ibilbidea du txapelketak, eta haren adinako pasarte sorta ere bai, txapeldunen agurrak bezainbeste hedatu ez diren arren. Antolatzaileok kontatuak dituzu hauek; eta badira gehiago...

Berriro ere kartzelara. 1980, Donostia

Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan egin ziren 1980ko eta 1982ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalak. Xabier Amurizak hartu zuen parte bietan; eta bietan txapela lortu ere bai. Amurizaren bikotekidearen aitak irratiz jarraitu zuen 1980ko finala. Entzuten ari zela "Amuriza kartzelara bidali dute" entzun eta irratia itzali eta ohera joan zen, haserre. Goizaldean, etxera iritsi zirenean jakin zuen txapeldun izan zela.

Euskal Herriko Txapelketa. 2009, Tolosa

Hasierako agurrak abesten ari ziren bertsolariak. Aurpegi arraroak ikusten ziren oholtzatik. Maiztasun jarraituko pilotakadak entzuten ziren; isiluneetan, nabarmen. Megafoniaren txisturen bat izango zela pentsatu genuen antolatzaileok lehenbizi, baina oholtza atzeko paretaren beste aldera eramán gintuen soinu jarriak. Han ari ziren bi lagun ping-pong jokoan; eta hirugarren bat eserita, begira. Goitik beherako jarrerán joan ginen antolaketakook, gurea bezain garrantzitsua ezer ez denaren ustearekin: "Barkatu, Euskal Herriko Txapelketa jokoan da, eta oholtzan dena entzuten da. Gelditu egin behar duzue". Gure lekuan jarri gintuen begira ari zenaren erantzun azkarrak, partidako epaileak: "Hau ere Euskal Herriko Txapelketa da. Lasai, bi tanto baino ez dira falta amaitzeko".

Gorakoan geldi. 2009, Tolosa

Ganbaran (lehen kartzela) dauden bertsolari parte-hartzaileek oholtzan dagoen bertsolaria ez entzutea izaten da antolakuntzarentzat buruhauste. Maiz kiroldogietan are gehiago zailtzen da lan hori, uralitzako sabaiaren pean dena entzuten delako, hiru ate dituen biltegi txikienean ere; Tolosako Usabal adibide. Lurrazpiko gela batean jartzen genuen ganbara, eta zamalanetarako erabiltzen den igogailu batean etortzen ziren gora bertsolariak, behin aurrekoek lana amaituta. Igogailuan ez gora ez behera gelditu zen Iñaki Gurrutxaga. Minutu bateko geldialdia egin zuen; ez zitzaigun laburra egin tartea.

Berriarena.

----, Barakaldo

Finaleko aurpegi berriak kantatu izan du goizeko saioko azken agurra. Azkenak Beñat Gaztelumendi, Aitor Sarriegi eta Unai Agirre izan dira kantuan, pozaren trukeko lana hartuta. Berriak, oraintsu arte, kantukideen beste agindu bat ere jaso izan du: Barakaldoko oholtzan hotza egiten duenez, zortzi bertsolarientzat artilezko galtzerdiak eramatea eskatzen zioten berriari. Bakarren bat joana da BECera artilezko galtzerdiekin.

Saria kalean. 2013, Durango

Gaur egun furgoneta daukagu Bertsozale Elkarteán, baina ez da beti hala izan. Lankideon autoak eta furgonetak erabili izan ditugu garraiorako; egun ere erabili behar izaten ditugu. Finalaren bezperetan trastez betetzen dira autoak. Finaleko prentsaurrekoa amaituta, Villabonara bueltan gentozen. Durangon egin genuen geldialdia, zerbait hartzeko edo uzteko. Lankidearen autoa trastez bete geneukan: gai-jartzailearen aukia sartu behar genuen, eta ez zegoen zirrikiturik. Barruan genuena atera genuen Durangoko espaloí batera, eta dena sartzeko moduan berrantolatu genuen materiala. Hurrengo egunean, banketxe batetik deitu ziguten, finalean eman behar zuten saria lurretako sukurtsalean entregatu zutela. Antza, herritarren batek espaloí gainean topatu zuen.

Bazkaltzeko untxiak. 2017, Barakaldo

Finalaren bezperetan material ugari iristen da finala hartuko duen aretora. Furgonetak iritsi ahala, deskargatu eta kargamentuaren agiria sinatzeko presa izaten da, hurrengo kamioiari lekua egiteko. Oholtza, argiak, aulkiak, aldizkariak...bazkaltzeko jeneroa ere bai. Esandako orduan iritsi zen haragia ekartzekoa zen furgoneta: untxiak zekartzan. Dokumentua sinatu eta furgonetako atea zabaldu zutenean konturatu ziren untxiak bizirik zeudela. Sukaldaria larritu zen, hark ez zuela untxirik hilko. Ordu erdira argitu zen auzia: beste eskari bat zen Barakaldora eramandakoa, BECen ez zuten untxirik eskaintzeko asmorik. Oholtza atzean egun osorako usaina utzi zuen okerrak.

Jarraipen taula

Komunean harrapatuta. 2017, Zalla

Komunera sartu eta ezin atea ostera zabaldu. Berria da Mimetiz pilotalekua, baina zer behar du ate batek kateatuta gelditzeko... komunean dauden bertsozaleei laguntza eskatu eta haien abisua antolakuntzara. Antolakuntzako bi kide gerturatu ziren, baina denbora iraun zuen erreskateak: galdu zituzten bi-hiru bertsoaldi. Badakizue: itxaron bertsoaldia amaitu arte, sartzeko eta ateratzeko.

Jarraipen taula

Lehenengo fasea

GETXO Irailak 24	Pun.	GASTEIZ Urriak 2	Pun.
Agin Laburu Rezola		Amaia Iturriotz Etxaniz	
Eneko Lazkoz Martinez		Haritz Mujika Lasa	
Nerea Elustondo Plazaola		Iban Urdangarin Lardizabal	
Oihana Bartra Arenas		Manex Agirre Arriolabengoa	
Peru Abarrategi Sarrionandia		Miren Artetxe Sarasola	
Unai Mendizabal Jauregi		Xabat Galletebeitia Abaroa	

ARRASATE Irailak 25	Pun.	DONOSTIA Urriak 8	Pun.
Gorka Pagonabarraga Agorria		Aitor Etxebarriazarraga Gabiola	
Iñaki Apalategi Astigarraga		Beñat Iguaran Amondarain	
Joanes Illarregi Marzol		Eñaut Martikorena Lizaso	
Miren Amuriza Plaza		Jone Uria Albizuri	
Saioa Alkaiza Guallar		Maddalen Arzallus Antia	
Xabier Silveira Etxeberria		Onintza Enbeita Maguregi	

GOTAIN-IRABARNE Urriak 1	Pun.	LIZARRA Urriak 9	Pun.
Alaia Martin Etxebeste		Aitor Bizkarra Ruiz	
Ane Labaka Mayoz		Asier Azpiroz Iztueta	
Julio Soto Ezkurdia		Imanol Uria Albizuri	
Nerea Ibarzabal Salegi		Iñigo Mantzizidor Larrañaga "Mantxi"	
Oihana Iguaran Barandiaran		Maialen Akizu Bidegain	
Patxi Iriart Hiribarren		Unai Gaztelumendi Arandia	

Finalaurrekoak
1. itzulia

ELIZONDO Urriak 22	Pun.
Unai Agirre Goia	
Arrasateko irabazlea	
Getxoko irabazlea	
Puntuazioz 5.a	
Puntuazioz 6.a	
Puntuazioz 13.a	

DONIBANE GARAZI Urriak 29	Pun.
Amets Arzallus Antia	
Gasteizko irabazlea	
Puntuazioz 1.a	
Puntuazioz 2.a	
Puntuazioz 7.a	
Puntuazioz 12.a	

IRUN Azaroak 5	Pun.
Sustrai Colina Acordarrementeria	
Donostiako irabazlea	
Gotaine-Irabarneko irabazlea	
Puntuazioz 3.a	
Puntuazioz 8.a	
Puntuazioz 11.a	

DURANGO Azaroak 12	Pun.
Aitor Mendiluze Gonzalez	
Beñat Gaztelumendi Arandia	
Lizarrako irabazlea	
Puntuazioz 4.a	
Puntuazioz 9.a	
Puntuazioz 10.a	

Finalaurrekoak
2. itzulia

AMURRIO Azaroak 19	Pun.
Donibane Garaziko irabazlea	
Elizondoko irabazlea	
Puntuazioz 5.a	
Puntuazioz 6.a	
Puntuazioz 11.a	
Puntuazioz 12.a	

BAIONA Azaroak 26	Pun.
Irungo irabazlea	
Puntuazioz 1.a	
Puntuazioz 4.a	
Puntuazioz 7.a	
Puntuazioz 10.a	
Puntuazioz 13.a	

BILBO Abenduak 3	Pun.
Durango irabazlea	
Puntuazioz 2.a	
Puntuazioz 3.a	
Puntuazioz 8.a	
Puntuazioz 9.a	
Puntuazioz 14.a	

Jarraipen taula

Finala

IRUÑEA Abenduak 18	Pun.
Maialen Lujanbio Zugasti	
Puntuazioz 1.a	
Puntuazioz 2.a	
Puntuazioz 3.a	
Puntuazioz 4.a	
Puntuazioz 5.a	
Puntuazioz 6.a	
Puntuazioz 7.a	



Babesle

iz./adj. Batez ere pertsona edo izaki bizidunez mintzatuz, zerbait edo norbait babesten duena.

BABESLEAK

Urtero Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen proiektua babesten duten erakundeak dira. Langai dugun eremuari aitortza egiten diote; bertsozaritari, alegia. Horrez gain, baliabidez laguntzen dute duela berrogei urte gizarteari arlo zehatz batean ekarpena egiteko sortu zen mugimendua: saretzeko eta bizirauteko behar du babes ekonomikoa, bertsozaritzan, euskarari eta euskal kulturari ekarpena egiteko.



Elkarlan erakundea

iz. Talde-lana, elkarrekin eginiko lana.

Ik. lankidetzak; lankidego; lankidetasun; kooperazio.

ELKARLAN ERAKUNDEAK

Bertsozale Elkartearen proiektu agerikoena da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Baina beste 60 proiektu inguru pentsatzen, kudeatzen eta berrikusten ditu urtero Bertsozale Elkarteak. Kultura eta hizkuntza dira gure alorrak, eta bost jardun eremuak: hezkuntza, ikerketa, sustapena, hedapena eta komunikazioa. Ez gara bakarrik aritzen: askotariko erakundeekin laguntza du proiektu horiek gauzatzeko. Elkarlanean sinesten dugu, eta elkarlanean egiten dugu lan. Bide aberasgarria da.



Elkarlana aztergai duen ikerketa

Bertsozale Elkarteak, Mondragon Unibertsitatearekin batera, azterketa egiten ari da herri garapenerako elkarlan ereduaren inguruan; gizarte mugimenduaren eta erakunde publikoen arteko artikulazioaz, hain justu. Elkarteak bere sorreratik garbi izan du elkarlana dela bidea; zenbaitetan, testuinguruaren arabera, nekezago izanda ere.

Gaur arteko bidea aztertu eta gizarte premia berriak aintzat hartuta, ekarpena egin nahi dio ikerketak artikulazio berrien inguruko hausnarketari.

50
urte

kulturgintzan,
herrigintzan



ekar
fundazioa